

-gailu

Hiriaren erritmoa

Mikel Abrego musikariaren eta Luis Andre bideogilearen arteko elkarlanaren emaitza da *Kutxa beltza*, -gailuren lehen lana.

Bilboko zirkulazioa kudeatzeko jarritako kamerekin egindako bideo dokumentua eta Abregok sortutako musika biltzen ditu lan horrek.

mikel lizaralde

Metak disketeak abian jarri duen Pil-Pil Sessions sail berria ireki du -gailuren *Kutxa beltza* CDak. Sail hori formatu bereziko lanak argitaratzeko sortu du Irungo disketeak, eta egile ezberdinen arteko kolaborazioak, esperimazio lanak edota lan bitxiak jaso nahi ditu. Ildo horretatik, *Kutxa beltza*, Mikel Abrego musikari andoaindarrak (Bap!, Negu Gorriak, Anari, Fermín Muguruza Dub Manifest) eta Luis Andre bideogile derioztarrak elkarrekin landu duten proiektua, sailari hasteko ezin egokiagoa da.

2002. urte honetan CD batean bilduta iritsi zaigun arren, *Kutxa beltza*-k baditu dagoeneko bost bat urte. 1997an, Bilboko hiriak zirkulazio kudeatzeko ezarritako kamerez baliatu zen Luis Andre, hiriaren erritmoa neurtzen zuen bideo lana egiteko. Autoen, pertsonen, langileen pausoei segitu zien zenbait

hilabetetan Andrek, eta, azkenean, goizaldetik gauerainoko bidaia bat irudikatu zuen.

Mikelek eta Luisek lehenagotik ezagutzen zuten elkar, eta Bap!-eko bateria jotzaileari lan hari musika jartzeko eskatu zionean, Mikel etxean landutako

musikaz oroitu zen. «Bap! deseginda zegoen ordurako, eta ni etxean musika egiten ari nintzen, sampler eta ordenagailuarekin. Filmerako musika bat eskatu zidan eta nik grabatuta nuen maketa bat pasatu nion. Dirudenez, gustatu egin zi-

tzaion eta pixka bat luzatzeko eskatu zidan». Bilboren egunerokoari musika jartzeko orduan, irudiek berari eragin zizkioten sentsazioetan oinarritu zen Mikel. Eta hala, trip-hop, downtempo eta drum'n'bassaren arteko nahasketa iradokitzailea osatu zuen, eguneko une bakoitzak erritmo bat izan zezan. «Egunean dauden argi eta erritmo aldaketak islatu nahi izan nuen».

Bilbo gainean jarritako begi orokusle horiekin landutako bideoa hiriburuko hainbat barrutitan aurkeztu zuten Luisek, Mikelek eta Eneko Abregok. Bartzuetan aurretik grabatutako

musika pintxatu zuten, beste batzuetan sample-rekin lan egin zuten eta besteren batean zuzenean landu zuten musika guztia. Baina aurkezpen haiek egin ondoren, *Kutxa beltza* eta -gailu berriro erretiratu ziren etxera. «Oso proiektu berezia izan zen, eta ez genuen pentsatu gero CD batean aterako zenik. Une hartan ere gustatuko zitzaizgun kaleratzea, baina ez zuen irtenbide askorik». Azkenean, Metak-ek martxan jarri duen Pil-Pil Sessions sail berriak eman die bidea -gailuri eta *Kutxa beltza*-ri.

Bost urtetik hona, ordea, *Kutxa beltza*-ri alda-

ketak egin dizkiote. Eta lehen 40 minutu inguru irauten zuen bideo lan musikatua zena orain 25 minututan bideoa eta bost kantu jasotzen dituen lana bihurtu da. «Garbiketa bat egin dugu, eta kantu egitura eman diegu abestiei. Horrekin batera, lehen musika hutsa zen, eta orain hitzak gehitu dizkiegu abestiei», esan du Mikelek. Hitzek, hain zuzen ere, bideoak eragiten dituen sentsazioak jorratzen dituzte; hala nola kontrol soziala (*Kontrolari kontrola*)—Fernando Saporen aspaldiko hitz batzuk—, goizaren eta gauaren izaera—*Hotzak esnatu naiz* eta *Gauetz ihesi*, biak Anarik idatzitakoak— eta vouyerismoaren mitoa (*Arimak lapurtuz bezala*)—Asier Zuluetak eta Amaia Abregok idatzitakoak—.

Bost kantu eta bost klip

Abestiei forma emateko orduan lagun askoren laguntza izan du Mikelek, eta guztien artean *Kutxa beltza*-ren espiritua gordetzen duten bost kantu osatu dituzte. «Lan handia egin behar izan dugu, kantuak moldatzeaz gain jende askok hartu duelako parte proiektuan eta dena lotu behar izan dugulako». Eta, horrekin batera, kantu bakoitzari dagokion bideo atala jaso dute CDan.

Oraingoz zuzeneko pare bat aurkezpen egingo ditu -gailuk, eta etorkizunera begira gelditu beharko dugu. Izan ere, Mikelek berak ere ez daki proiektuak segida izango duen: «Jarraituko dut etxean lanean eta ikusiko dugu zerbait sortzen den».

▼ galder izagirre



-gailu

Izenburua: Kutxa beltza
 Disketea: Metak
 Iraupena: 23:52" + bideoa
 Ekoizlea: Hendrik Rover
 Webgunea: www.musikametak.com
 Taldekideak: Mikel Abrego eta Luis Andre



Lagunen artean

Kutxa beltza proiektuaren atzean Mikel Abrego eta Luis Andre izan arren, azkenean, lagun pilo baten laguntzarekin grabatu dute egun hauetan argia ikusi duen CDa. «Diskoan parte hartu duten guztiak aspaldiko lagunak dira, baina ez nuen beraien gain pentsatu. Gehiago pentsatu nuen konponketetan, eta horien arabera deitu nien lagunei».

Hitzak hauek idatzi dituzte: Asier Zuluetak eta Amaia Abregok (*Arimak lapurtuz bezala*), Anarik (*Hotzak esnatu naiz* eta *Gauetz ihesi*), El Corazon del Sapok, Galder Izagirrek eta Aritz Izaerak (*Kontrolari kontrola*) eta Trio Kempesek—Makala, P3Z eta Kempes— (*Ezin*).

Mikel konposizioaz eta programazioaz arduratu da, eta Luis, bideo programazioaz. Eta haien ondoan Galder Izagirre-ren bateria, DZren *scratch*-ak, Anari, Zalao Urain, Fernando Sapo eta Eneko Abregoren ahotsak, Trio Kempes oso-osorik, Stefano Cecchi, Maurizio Gregori eta Sandokoan Antonozziren (Banda Bassoti) haize atala, Drakeren baxua eta Jomesen zerra, organoa eta gitarra entzun ditzakegu. Garate estudioetako gela txiki batean grabatu zuten *Kutxa beltza*, eta bertatik pasatu zirenen artean Hendrik Rover Los Del Tonos taldeko kidea ere egon zen: «Bere azkenengo diskoa Garaten grabatu zuen, eta elkar ezagutu genuenean, aipatu nion diskoa ekoizteko aukera. Eta prest azaldu zen»

Metak jaietan zuzenean

Datorren asteartean lehenengo urtebetetzeko jaiak ospatuko du Metak disketeak, Oizartungo Pagoa aretoan, eta festa horren barruan egingo du -gailuk *Kutxa beltza*-ren aurreneko zuzeneko aurkezpena. Kuraia taldeak ere bere lehendabiziko diskoa aurkeztuko du, eta, horietaz gain, lau DJ ariko dira musika jartzeko: Selektah Kolektiboko DZ—gailuren diskoan hartu parte—, DJ Zulle, DJ Txin eta DJ Prest. Festa gaueko 22:00etan hasiko da, eta 6 eurotan eskura daitezke sarrerak.

T.L.T.

MINUS

T.L.T.
MINUS

CD • MC BERRIA
APIRILAK 25 KALEAN